

www.unescoetxea.org

2010

TXOSTENA
UNESCO ETXEA

RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA • MIKEL MANCISIDOR ZUZENDARIA

Hirugarren MEMORIA honetan ere denok –batzuk gehiago beste batzuk baino– jasaten ari garen egoera ekonomiko zaila aipatu behar dugu gutun honen hasieran. Inor ez da harriruko gai horrekin hasteagatik: oso urte gogorak izaten ari dira, eta badirudi oraindik ere antzeko arazoak egongo diren beste zenbait urte izango ditugula.

Gastuak doitu behar izan ditugu, oso murriztuta zeudela ematen zuen arren; kontratazio bakoitza, apustu berri bakoitza, proposamen berri bakoitza zaindu behar izan dugu izugarriko zuhurtasunez. Estu lotuta zeuden gerrikoak areago estutu behar izan ditugu.

Baina hau ez da kexuka hasteko gutuna; harrotasunez betetakoa baizik: zailtasunak zailtasun, batzuetan ulertu ezinak gertatu arren, egoera gorabehera, UNESCO Etxea bere MISIOA betetzen jarraitzeko gauza izan da. Ahalegin handia egin dugu gure espezializazio-esparruetan, eta indar-gune instituzionaletan; talde profesional bat izan dugu, bere nahiak eta beharrak aukeretara egokitzen jakin izan duena; kontseilu arduratsua izan dugu, bere eginkizunak zorrotzasun handiz bete dituen; hainbat lankide eta lagun ere izan ditugu, toki desberdin askotatik laguntza eman digutenak, besteekin batera aukera eman digutenak ez bakarrik gure lehengo egoerari eusteko, bai eta, batez ere, eta hori da garrantzitsuena, kualitatiboki hazten jarraitzeko ere: gure lanaren kalitatean eta neurrian, gure eraginkortasunean eta gure erakundearen izen onean. Horren guztiaren adibide zehatzak aurkituko dituzu MEMORIA honetako orrialdeetan.

Gaur egungo egoera dela eta, inoiz baino garrantzitsuagoa da jakitea gure BALIOEN adierazpenean jasotako kontzeptuak, gardentasuna eta gobernu ona, benetakoak direla, eta praktikan aplikatzen direla. Horregatik, hemen esan beharrekoa dugu gure estatutu-organoei beste bi kide izatea onartu dutela aurten: Ana Oregi arkitektoa (egungo lehendakariordea) eta José Miguel Martínez Urquijo ingeniaria (EHUko Gizarte Kontseiluko lehendakari ohia). Gizarte-erakunde batek, instituzioetan eta gobernamentu globalean gobernu ona koherentziaz eskatzen jarraitu nahi badu, ezinbestekoa du bere gobernu-organon nagusiak berritzean garrantzizko eta zentzuzko pertsonak aukeratzea, gure sektoreak gobernu onerako berezko dituen arauen arabera jokatzeara.



Sendotasuna eta autoritatea emango dizkigun gizarte-esparru zabala izatea da gure helburuetako bat. Aurten, ziur aski gure barne-gastuetan egin behar izan ditugun murrizketen ondorioz, bazkide batzuk galdu ditugu, eta pena handia eman digu horrek (bide batez, proiektu honetan parte hartzen jarraitzea gonbidatzen ditugu, hala nahi badute, horretarako modu asko eta asko baitago, kuota ordaintzeaz gain). Baina, aurkakoa ere gertatu da, beste 10 bazkide sartu baitira, eta espero dugu pixkanaka beren itxaropen guztiak beteko dituztela, tokian tokikotik abiatuta herritartasun globala eraikitzeko esperientzia honetan gurekin batera parte hartuz.

Lankide eta bazkide gehiago geureganatzen jarraitzeko baliatuko dugu UNESCO ETXEAREN XX. URTEURREN hau (1991-2011)... Animatu!

Erredakzio: UNESCO Etxeko lan-taldea
Produktzio editoriala: SRB, S.L.
Edizioa: 2011ko ekaina
Editatzen du: UNESCO Etxea
 Isozaki Atea – Bizikidetasun enparantza
 Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala
 48001 Bilbao
 Tfna.: 94 427 64 32
 Faxa: 94 427 25 48
 Zapateria kalea 8.
 01001 Gasteiz
 info@unescoetxea.org



UNESCO Etxea
 www.unescoetxea.org



-en gaude




Klororik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan eta birziklagarrian inprimatua.
 Bere erabilerarekin argitalpen honetan honakoa aurreztu da: 2 zuhaitz-mozketa, 830 litro ur-erabilpena,
 711 Kilobatio/orduko argi-kontsumoa eta 174 CO₂ kilo-izurtzea

NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura Publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 124 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXeko ORGANIGRAMA



* Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin kolaborazioan 16 Bekadun UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan.

EGINKIZUNA ETA IKUSPEGIA

EGINKIZUNA

UNESCOREN Konstituzioko agindua –persona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOREN sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- ▶ aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- ▶ elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBErekin;
- ▶ bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura-komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira herritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.

LAN-TALDEA



Beste proiektu batzuei ekiteko UNESCO Etxea utzi duten gure lagun Lorena Vega eta Ruth Fernández, eta bihotz bihotzez arrakasta opa diegu maila pertsonalean zein profesionalean.

SARE ETA ALIANTZA NAGUSIAK

UNESCOREKIN eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- ▶ UNESCOREKIKO Harreman Ofizialen Estatusa.
- ▶ Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- ▶ Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- ▶ UNESCO zentroa nazioartean aintzatetsia.
- ▶ UNESCOREKIN Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea.
- ▶ UNESCOREKIN elkartutako eskolen sarearen (PEA Sarea) autonomia-erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- ▶ UNESCOREKIN Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- ▶ Nazio Batuen Milurteko Kanpaina.
- ▶ Nazio Batuen Europako Eskualde Bulegoa (UNRIC).
- ▶ Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- ▶ Garapenerako Nazio Batuen Programa (PNUD).

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- ▶ UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- ▶ Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GKE-en Konferentzia (CONGO).
- ▶ Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroa (UBUNTU).
- ▶ Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- ▶ CONGDE-Espainiako GKEen Koordinakundea (uraren eta klima aldaketaren taldeak).
- ▶ Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarteen Federazioa.

- ▶ Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokia.
- ▶ Unescocat-Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax institutua.
- ▶ Munduko Landagunea.
- ▶ Cultura de Paz Fundazioa.
- ▶ Global Campaign for Climate Action.
- ▶ End Water Poverty Coalition.

...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen aniztetan parte hartuz...

- ▶ Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari eta Munduko Hizkuntza.
- ▶ Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedrak.
- ▶ Euskadiko GKEen Koordinakundea (eragin politikoa taldea).
- ▶ Giza Eskubideetan Heitzeko eta Bakearen aldeko Elkarteen. Foroa. (lehendakariordetza).
- ▶ Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- ▶ Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- ▶ Erromako Klubeko Atal Espainiarraren Euskal Taldea.
- ▶ Euskaltzaindia.
- ▶ Euskal Fondoa.
- ▶ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- ▶ Garapen Bidean.
- ▶ Amalur Fundazioa.
- ▶ Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- ▶ San Nicolás Arraun Taldea. Portugalete.

...eta isurpenak konpentsatzen dituen...

Ekitaldi nagusien ospakizunetan eta liburuen argitarapenerako erabilitako paper kontsumoak eta banaketa lanak sortutako berotegi efektuko gasen isurpenak hain zuzen.

UNESCO beken programa

1997 – 2010

143 PERTSONA


43 HERRIALDE

UNESCO Bekak kontinenteen arabera

KONTINENTEAK	PERTSONAK
AMERIKA	73
ASIA	36
AFRIKA	29
OZEANIA	5
GUZTIRA	143

UNESCO Bekak sexuaren arabera

EMAKUMEAK	112
GIZONAK	31
GUZTIRA	143



PROGRAMAK

UNESCO Etxeak 2010ean egin dituen jarduera guztien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:



“Declaración sobre los derechos de los pueblos indígenas. Hacia un mundo intercultural y sostenible” liburuaren aurkezpena.
James Anaya, Baltasar Garzón, Daniel Oliva eta Felipe Gómez Isa. Madrilén, maiatzaren 6an.

GARAPENERAKO KULTURA

2010. urtea Kulturak Elkarrengana Hurbiltzeko Nazioarteko Urtea izan zen. UNESCO arduratu zen urtea koordinatzeaz. UNESCO Etxeak nazioarteko ospakizun horretako ekimen eta jarduera ugari sustatu zituen.

Gogoeta sakona egin dugu kultura-ikuspuntua garapen-prozesuetan jasotzeari buruz. Lan horren eta gai honi buruzko eztabaida-sare eta ekimenetan izandako parte-hartze aktiboaren emaitza izan da “Kultura eta garapena. Bilakaera eta etorkizuneko aukerak” lana argitaratzea. Kulturak eta haren adierazpenek garapen-prozesu guztietan bete dezaketen eginkizuna nola joan den ikusgai jartzeko aztertu da lan horretan.

Euskal esparruko ondareari dagokionez, kultura –eta natura– ondarea garapenarekin lotzen dituzten tresnen gaineko aholkularitza eta sensibilizazioa sustatu ditugu, bereziki Gesaltza Añanako eta Guardiako kultura-paisaietan (Araba). Gainera, Kultura eta Natura Ondareari buruzko I. Kongresua antolatu dugu Urdaibain (Bizkaia), eta ondare-mota guztien kudeaketa koordinatuaren premian sakondu dugu.

2010eko irailan, UNESCO Etxea Linguapax-en ordezkari izendatu zuten. Linguapax nazioarteko sare bat da, eta hizkuntzak sustatzen ditu kulturak eta identitateak adierazteko funtsezko bitarteko gisa, bai eta kulturek elkar ulertzeko eta bakearen aldeko faktore gisa ere.

Kulturartekotasunaren esparruaren barruan, “Herri indigenen eskubideei buruzko adierazpena. Mundu jasangarri eta kulturartekorantz” lana argitaratu eta aurkezteko ekitaldiak antolatu ditugu Madrilén eta Bilbon. Ekitaldi horietan, James Anayak parte hartu du, Herri indigenen eskubideei buruzko NBEko errelatore bereziak.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

GARAPENERAKO URA

Arrakasta handiz egin dugu ura izateko giza eskubideari buruzko bideoen “Eman minuto 1 uraren alde” nazioarteko lehiaketa. Lehiaketan munduko hainbat tokitako ia 100 bideok parte hartu dute, eta handia izan da erakundeen, pertsonen eta komunikabideen lankidetzeta, bai eta sarrien banaketako parte-hartzea ere.

Uraren, saneamenduaren eta higienezko aldeko “WASH United” nazioarteko kanpainan parte hartu dugu. Euskal esparruan, Bilboko Athletic Clubeko jokalaririk baten eskutik sustatu dugu kanpaina hori. Jokalaria Ustaritz izan da, gure bazkide ongilea. Kanpainari jardunbide ona izan delako aitortzea egin dio ura eta saneamendua izateko giza eskubideari buruzko Nazio Batuetako aditu independentek.

Stockholmeko Uraren Mundu Astea (nazioarteko funtsezko foroa urari dagokionez), mintegi bat antolatu dugu giza eskubideen ikuspegiak dakarren balio erantsiari buruz, erreferentziatzeko zenbait erakunderekin batera antolatu ere; adibidez, Garapenerako Nazio Batuen programarekin batera. Ura izateko giza eskubidearen benetako aplikazioaz gogoetatzeko eta praktikak egiteko, “Ura izateko giza eskubidearen ezarpena” jardunaldia antolatu dugu Mugarik gabeko Ingeniaritzarekin batera, eta izen bereko argitalpen bat ateratu dugu. Parte-hartze eraginkorra izan dugu Espainiako Garapenerako GKE-EN KOORDINAKUNDEKO UR TALDEAN (CONGDE).

UNESCO Etxeak urari, giza garapenari eta giza eskubideei buruzko sensibilizazio-lana egin du nazioartean, estatuan eta autonomietan antolatutako hainbat ikastaro eta mintegitan. Zenbait ekitaldi antolatu ditugu Uraren Mundu Egunaren inguruan, eta Unescoat-ek egindako “Ura XXI. mendean” izeneko posterrak eta gidak euskaraz argitaratu ditugu irakasleentzat. Era berean, “Ura eta giza garapena” buletina kaleratu dugu, eta emakumezko mazahua indigenek ura izateko eskubidearen alde egindako borroka “Ura eta gizarte-desberdintasuna” argitalpenean jaso dugu.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org



“Eman minuto 1 uraren alde” nazioarteko bideo-lehiaketako sarrien banaketa. Bilbon, urtarrilaren 28an.



Euskal Herriko geodibertsitateari buruzko jardunaldiak. Landa-irteera. Zumaia, maiatzaren 14a.

IRAUNKORTASUNA

Biodibertsitatea kontserbatzearen eta sustatzearen garrantzia aldeztu jarraitu dugu 2010. urtean haren nazioarteko urtea ospatu bitartean. Alde horretatik, besteak beste, erakusketa ibiltari bat egin dugu. Erakusketan argi ikusi da nola lan egiten duen nazioarteko erkidegoak biodibertsitatearen erabilera orain eta etorkizunean jasagarria eta zuzena izango dela ziurtatzeko.

Era berean, geodibertsitatea Euskadin sustatu dugu. Alde batetik, "Euskal Herriko Geodibertsitateari buruzko I. Jardunaldiak" eginez; bestetik, Euskal Kostaldeko Geoparkearen hautagaitza babestuz. UNESCOk, azkenean, onartu egin du hautagaitza hori.

"Milurtekoko ekosistemen ebaluazioa" proiektuaren bidez, ekosistemak giza ongizatearentzat mesedegarri izateko dauden arrazoi ugariak ikertu eta zabaldu dira Bizkaian, Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Euskal Herriko Unibertsitateko UNESCO Katedraren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Lanean jarraitzen dugu klima-aldaketa garapenerako lankidetzan sartzeko, eta agerian uzteko herri pobretuetan duen eragina, erantzukizun komunak baina, aldi berean, bereziak daudelako printzipioan oinarrituta. Aurten, prestakuntza –eta sentsibilizazio– ekintzak egin ditugu (beste erakusketa ibiltari bat nabarmentzen da: "Klima-aldaketa eta pobrezia"), eta aholkularitza-lana egin dugu emisioen konpentsazio-proiektuen esparruan, Euskal Herriko garapenerako gobernu kanpoko erakunde batzuentzat.

2010ean, ikuspuntu berriak jaso ditugu klima-aldaketaren esparruan egiten dugun lanean; generoaren ikuspuntua eta giza eskubideena, adibidez. Horrenbestez, konplexutasun handiko erronka hori osokiago ulertzen lagundu dugu.

**Informazio gehiago: www.unescoetxea.org
BAKE KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK**

UNESCO Etxea lehen bezala orain ere sinetsita dago Bake Kultura humanismo berriaren oinarri modura hartu beharko litzatekeela, indarretik arrazoira, gatazka eta indarkeriatik elkarrizketa eta bakera aldatzea lortzeko ezinbestekoa den mentalitatea sortzeko. Era berean, guztiz sinetsita dago humanismo berri hori administrazio publikoek eta gizarte zibilak batera lan eginez baino ezin daitekeela gauzatu.

Horregatik, 2010. urte honetan, elkarrizketa bizia eta irekia bultzatu dugu, gure irizpidea adierazi dugu, zenbait elkargunetan parte hartu dugu, bai administrazio publikoarekin (Eusko Jaurlaritzako Bizikidetzaren Demokratikorako Planaren jarraipena egiteko Kontsulta Batzordeko kide izanik), bai gizarte zibilarekin (Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Elkartearen Foroko Zuzendaritza Batzordeko kide izanik).

2010. urtea funtsezkoa izan da bakerako giza eskubidearen aitopenerari bultzada emateko. Laguntza eman diogu Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubidea Garatzeko eta Aplikatzeko Espainiako Elkarteari (AEDIDH) eskubide horren aitopena bultzatzeko egiten duen borrokan, eta, horretarako, bilera bana antolatu dugu Bilbon eta Bartzelonan. Bilera horietan, munduko alde guztietako hainbat adituk aitzakiarik gabeko lana egin dute Bakerako Giza Eskubidearen Kodifikazio Pribatuan. Bilboko eta Bartzelonako adierazpenak Santiagon Munduko Hezkuntza Foroan egindako nazioarteko mintegian onartu ziren. Foro horretan, beste bi jarduerarekin parte hartu genuen. Jarduera horietako bat UNESCOrekin Elkartzeko Eskolen Sareari (PEA sarea) buruzkoa izan zen; bestea, gobernamendu globalari buruzkoa, eta bertan gure Ohorezko Bazkide Daniel Innerarityk esku hartu zuen.

2010ean, hiru euskal ikastetxe sartu ziren PEA sarean, eta beste lauk "Monumentuen Nazioarteko Esperientzia Fotografikoa" izenekoan (Europako Kontseiluaren ekimena) parte hartzea kudeatu zen. Bi euskal ikasleek sariak jaso zituzten beren ingurunean kultura-ondareari buruz egindako argazkiengatik, eta Estrasburgon egindako gazteen nazioarteko bilera batean parte hartu zuten.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org



"Gobernamendu globala eraikitzea gizarte zibiletik" hitzaldia. Mónica Vázquez eta Daniel Innerarity. Hezkuntzako Mundu Foroa. Santiago, abenduaren 13a.



Giza Eskubideetarako Kontseiluaren 14. saioa.
 "Kultura-eskubideak: lehentasunak eta haiek betetzeko erronkak".
 Besteak beste, Farida Shaheed eta Maider Marañá izan ziren parte-hartzaile. Genevan, ekainaren 1ean.

GARAPENERAKO EGKE PROGRAMA

2010ean, gehiago sakondu dugu eskubideetan oinarritutako ikuspuntua garapenean jasotzeko premian, eta giza eskubideen zatiezintasuna eta haien arteko lotura sustatu ditugu. Oso hurbiletik jarraitu dugu Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren Protokolo Fakultatiboa onartzeko, sinatzeko eta berresteko prozesua, oso urrats garrantzitsua baita haren galdagarritasuna eta aplikazioa bermatzeko.

Kultura-eskubideen esparruan, "Kultura-bizitzan parte hartzeko eskubideari buruzko Nazio Batuen Oharpen Orokorra" delakoa eskualdeetan zabaltzeko eta egokitzeko prozesuetan parte hartu dugu. Horren adierazgarri, parte-hartze aktiboa izan dugu UNESCO-Costa Ricarekin batera "Kultura-bizitzan esku hartzeko eskubidea betetzera Latinoamerikan" izeneko kongresuan. Kultura-eskubideei buruzko NBEko aditu independentearen aginteari eman diogun babesaren barruan, "Kultura-eskubideak: lehentasunak eta haiek betetzeko erronkak" izeneko ekitaldi paraleloaren antolaketa azpimarratzen dugu. Ekitaldia 2010eko ekainean egin zen, Genevan, NBEko Giza Eskubideen aldeko Kontseiluaren saioan; Farida Shaheed aditu independenteak parte hartu zuen.

2010. urtea garrantzitsua izan da ura izateko giza eskubidearen ikuspuntutik, NBEk ofizialki aitortu baitu ura funtsezkoa dela bizitza eta giza eskubide guztiak osatoro goatzeko. UNESCO Etxeak haren onarpena eta aplikazioa lortzeko urrats guztietan lagundu du (adibidez, azpimarragarria izan da ura eta saneamendua izateko giza eskubiderako NBEko aditu independentearen lanari eman diogun babes aktiboa), eta, horretarako, nazioarteko, estatuko eta autonomiako esparruetan sustapenez, sentsibilizazioaz, dibulgazioaz eta eragipen politikoaz baliatu gara.

Nazioarteko erkidegoak Milurtekoko Helburuetan bere gain hartutako xedeak eta UNESCOren "Hezkuntza Denontzat" programa zer neurritan bete diren ikusi eta balantzea egiteko, "Hezkuntzarako eskubidea: egoera eta erronkak" mahai-ingurua egin genuen urriaren 20an; honako hauek izan ziren parte-hartzaile: Luis I. Ramallo, UNESCOrekiko Lankidetzarako Espainiako Batzorde Nazionalako lehendakaria; Vernor Muñoz, Hezkuntzarako Eskubiderako Nazio Batuetako errelatore ohia; Marina Navarro, Nazio Batuen Milurtekoko Kanpainak Espainian duen koordinatzailea; eta Mónica Vázquez, UNESCO Etxekoa.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

ORIENTAZIO-ZENTROA, KOMUNIKAZIOA ETA BEKAK

"Milurtekoa+10eko Garapen Helburuak" proiektua ekimen berritzailea izan da, eta, Bilboko Udalararekin lankidetzan arituta, euskal herritarrek Milurtekoko Garapen Helburuen egoeraz eta erronkez sentiberatzea izan du helburu. Zeregin horretan, azpimarratzekoa da UNESCOren Elkartutako eskolen sareko hezkuntza-zentroen parte-hartzea. Ikasleek oso parte-hartze aktiboa izan zuten, eta, besteak beste, Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko materiala egin eta partekatatu zuten, eta "flashmob" batean parte hartu zuten.

Gainera, nazioarteko konferentzia bat antolatu genuen, eta bertan Nazio Batuek, Milurtekoko Garapen Helburuen 10. urteurrena zela eta, antolatutako Munduko Goi Bileran zer emaitza lortu ziren eta gizarte-zibilak zer erantzun eman zuten jakiteko eta eztabaidagai izateko aukera izan genuen.

Eusko Jauriaritzaren NBE beka-programari esker, hamaika pertsona UNESCOren bulegoetan lanean hasi dira, Asiako, Afrikako, Amerikako eta Ozeaniako zazpi herrialdetan, eta bost lagunek beka luzatu dute, bigarren urtea egiteko.

Dokumentu-funts bat kudeatu dugu. Funts horren barruan, hainbat eta hainbat dokumentu daude; besteak beste, 3.400 titulu baino gehiago, aldian behingo 80 argitalpen, munduko zenbait goi-bilerari buruzko gaikako dosieriak, ikus-entzunezkoak, material didaktikoa, eta NBEko eta UNESCOko agiri ofizialak.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

2010EKO ARGITALPENAK

Catarata argitaletxeko 'Ensayos UNESCO Etxea' bilduman:

www.catarata.org web gunean eskuragarriak

- [Agua y desigualdad social. El caso de las indígenas mazahuas en México.](#)
- [Estudios sobre el derecho humano a la paz.](#)

Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentuen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- [Etorkizun iraunkorrerako irakaskuntza eta ikaskuntza.](#)
- [Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.](#)
- [Giza garapenari buruzko txostena 2010. Laburpena.](#)

Nazioen benetako aberastasuna: giza garapenerako bideak.

- [Mugan: gazteak eta klima-aldaketa. Munduko populazioaren egoera, 2009. Gazteei buruzko gehigarria.](#)

Berezko argitalpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- [Amazonia y agua. Desarrollo sostenible en el siglo XXI.](#)
- [Bakerako Giza Eskubideari buruzko Bilboko Adierazpena.](#)
- [Culture and development. Evolution and prospects](#)
- [Kultura eta garapena. Bilakaera eta etorkizuna.](#)
- [Derecho al agua. Implementación del derecho humano al agua.](#)
- ["Ura XXI. Mendean" posterrak \(2 bilduma\).](#)



GIZA ESKUBIDEEN KULTURA SUSTATZEKO UNESCO/BILBAO SARIAREN II. EDIZIOA

Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko UNESCO/Bilbao Saria UNESCOk eta Bilboko Hiriak batera izandako ekimen bat da, UNESCO Etxeak babestua, eta bi urtean behin ekimen berritzaileak eta ezohikoak nahiz ibilbide eredugarriak saritzen dituena. Haren bidez, iritzi publikoa sentsibilizatzen lagundu nahi da, argi ikus dezan zeinen garrantzitsua den giza eskubideak zaintzearen eta betetzearen kultura sustatzea.

Lehen saria, 2008koa, Stéphane Hessel-entzat izan zen. Gizon hori Frantziako erresistentzian borrokatu zen II. Mundu Gerran, eta 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala sortu zuen Nazio Batuetako Batzordeko kidea izan zen. 2011. urte honetan, gizartean izugarriko eragina izan duen liburu bat argitaratu du: "Haserretu zaitezte!".

Azpimarratu behar da sariak aitorten handi bat jaso berri duela, UNESCOren berarena; izan ere, erakundeak "Munduko herrialdeen onurarako UNESCOren 65 ekintzak" dokumentuan jaso du, erakundeak nazioartean egindako 65 ekimen azpimarragarrietako bat dela iritzi. Era berean, erakunde horrek berak egindako lehen jardueramemorian jaso dute.

IRINA BOKOVAK, UNESCOREN ZUZENDARI NAGUSIAK, UNESCO ETXEA BISITATU DU

2010eko abenduaren 10ean, UNESCOren zuzendari nagusi Irina Bokovak UNESCO Etxearen egoitza bisitatu zuen.

Bisitatu zehar, UNESCO Etxearen lan-programak eta gure jardueramemoria garrantzitsuenak aurkeztu genizkion.

Haren presentziak gure 20. urteurrenaren ospakizunei hasiera eman zien.

UNESCOren zuzendari nagusiak eta Ruper Ormazak, UNESCO Etxeko presidentek, hitz batzuk zuzendu zizkieten gurekin bildutako bazkide eta kideei, bi erakundeek batera sustatutako lan-ekimen emankorren aldeko iritzia eman zuten, eta etorkizunean lankidetzan hori mantentzearen eta zabaltzearen alde agertu ziren.

Bisitaren ondoren, zuzendari nagusiak oso eskutitz atsegini bat bidali zigun. Bertan, hau zioen:

Bigarren aldian, Asma Jahangir pakistandarrak jaso zuen sari nagusia. Horren bidez, honako hauek saritu nahi izan ziren: giza eskubideen alde egindako bide luzea; Pakistango Auzitegi Gorenean egindako abokatu- eta legelari-lan bikaina; Pakistango Giza Eskubideen Batzordeko buru giza egindako lana; Emakumeen Ekintza Foroa sortzen aritu izana; eta Erlitio Askatasunerako NBEko errelatore berezi giza Nazio Batuei egindako zerbitzuak.

Ohorezko aipamenak honako hauentzat izan ziren:

Fundación Cultura de Paz (Espainia): gure ohorezko bazkide Federico Mayor Zaragoza da fundazio horretako burua, eta bake-kultura eraikitzen eta finkatzen egindako ahalegin handien aitorten gisa egokitu zitzaion aipamena.

Corporación Parque por la Paz Villa Grimaldi (Txile): korporazio horrek gorde eta sustatu du 1973 eta 1990 bitarteko diktadura militarrean hildakoen, biziraun zutenen, atxilotuen eta desagertuen oroitzak; sekulako ekarpena izan da, beraz, giza eskubideen munduko kulturarentzat.

France terre d'asile & Fédération internationale Musique Espérance (Frantzia): batera lan egin dute herrialdeek beren gain hartutako nazioarteko konpromisoak bete ditzaten, emigratzaileen eta haien familien giza eskubideak errespetatzen direla ziurtatzeko, bai eta elkartasuna, giza duintasunaren errespetua eta kultura-dibertsitatea sustatzeko ere.

Saria emateko ekitaldi ofiziala abenduaren 10ean egin zen, Giza Eskubideen egunean, Bilboko udaletxeko Arabiar Aretoan.

Bi erakunde antolatzaileetako ordezkari gorenak izan ziren ekitaldiko buru: Iñaki Azkuna, Bilboko alkatea; eta Irina Bokova, UNESCOko zuzendari nagusia. Haiekin batera egon zen gure presidentea, Ruper Ormazak.

Aurreko egunean, UNESCO Etxeak eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak "Giza eskubideen aldeleak diskriminazioaren aurka" izeneko mahai-ingurua antolatu zuten Deustuko Unibertsitate Liburutegi berrian.



"Nire eskerrik beroena eman nahi dizuet, UNESCO Etxea bisitatzeko eta hartan lan egiten duen talde osoarekin eta lankide guztiekin biltzeko aukera eman didazuelako erakundearen 20. urteurrenari; izan ere, aparta da zuen erakundeak UNESCOren idealen alde, hau da, bakearen, elkarlanketaren eta bake-kulturaren alde hartuta daukan konpromisoa".

DATU EKONOMIKOAK

UNESCO Etxeak bere finantzei buruzko informazio gardena eta zorroztza ematen dio gizarteari. Gure kontuak LKS Auditores, S.L.k ikuskatzen ditu. Kontu-ikuskaritzaren txostenak. www.unescoetxea.org. helbidean daude.

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2010ean laguntza eman baitigute bake-kulturaren eta giza eskubideen alde lanean jarraitzeko.



EL CORREO



Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

Sarrerak guztira, 2010

1.215.267,2

Ekarpak pribatuak	164.760,97	%13,56
Bazkideak	10.098	%0,83
Erakunde pribatuak	144.631,26	%11,90
Beste batzuk (ikastaroetako izen-emateak, balorizazioak...)	10.031,71	%0,83

Ekarpak publikoak 1.050.506,23 %86,44

Eusko Jaurlaritza (*)	561.531,72	%46,21
Aldundiak (BFA-AFA-GFA)	158.950,05	%13,08
Udalak (Bilbo, Getxo, Mungia)	165.770,45	%13,64
Atzerri eta Lankidetzeta Ministerioa	74.551	%6,13
UNESCO	53.000	%4,36
Beste batzuk	36.703,01	%3,02

(*) Eusko Jaurlaritzan:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila %64, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila %15, Justizia eta Herri Administrazio Saila %11, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila %7, Kultura Saila %3.

2010eko Auditoriaren txostena



Programetako gastua

Gastuak guztira, 2010 1.196.439,36

Orientazio-zentroa, komunikazioa eta beka	97.303,50	%8,13
UNESCO beka	206.560,50	%17,26
Ekonomia, gizarte eta kultura eskubideen programa	86.954,38	%7,27
Iraunkortasuna programa	238.540,25	%19,94
Garapenerako Kultura proiektuak	130.974,35	%10,95
Garapenerako ura programa	55.422,14	%4,63
Bake Kulturaren eta giza eskubideen aldeko programa	219.811,22	%18,37
Nazioarteko harreman-hitzarmenak	39.086,14	%3,27
Kudeaketa orokorra	121.786,88	%10,18

Egoera-balantzea

Aktiboa 2010

A) Aktibo ez-zirkulatzailea	218.670,78
B) Aktibo zirkulatzailea	947.530,08

Aktiboa guztira 1.166.200,86

Ondare garbia eta pasiboa 2010

Fondo propioak	55.477,86
Lokalen lagapenaren balorizazioa, zenbait urtetarako diru-laguntzak	868.832,79
Pasibo zirkulatzailea	241.890,21

Ondare garbia eta pasiboa guztira 1.166.200,86

1991-2011

Nuestros 20 años en imágenes
Gure 20 urteak irudien bitartez



1988
Presentación a Federico Mayor Zaragoza, director general de la UNESCO, del proyecto de Asociación Amigos de la UNESCO. Sede UNESCO. Cataluña. Barcelona.



1991
Asamblea de Constitución de la Asociación Amigos de la UNESCO País Vasco. Primera Junta Directiva formada por: Jon Anieta (Presidente), Elena Sierra (Vicepresidenta), Unai Martínez (tesorero), Begoña Ebebarria (Secretaria) y Roger Ormeaza (Vocal).



1994
Primeras Jornadas de Irdubai.



1996
Seminario Internacional Linguapax de la UNESCO sobre Políticas Lingüísticas (Leiz). Primera visita oficial de un director general de UNESCO a Euzkadi.



1997
Firma del Memorando de Entendimiento UNESCO-Gobierno Vasco.



1997
Inicio del Proyecto del Informe sobre las lenguas del mundo.



1999
Inicio del programa "Experiencias de cultura de paz en el mundo: conflictos en vías de solución".



1999
Intervención de Paul Ortega en la Conferencia General de la UNESCO.



1999
Presidencia de la FMCU/WFUCA (Esteremburgo, Rusia)



2000
Homenaje a Federico Mayor Zaragoza.



2001
Congreso Internacional del Voluntariado. Victoria-Gasteiz.



2004
Mikel Moneasor, director de UNESCO Euzka.



2004
Apertura Centro KOOPERA.



2004
Adhesión de Euzkadi a la Declaración de Objetivos del Milenio.



2005
Campaña Mundial de la Banda Blanca por los "Objetivos de Desarrollo del Milenio".



2005
Constitución del Consejo Asesor de Socioe de Honor y Declaración sobre Diversidad Cultural.



2005
Primera Memoria Anual de Actividades.

1991-2011

Nuestros 20 años en imágenes

Gure 20 urteak irudien bitartez



2007 Ohorazko Bazterdaren Aholku Batzordearen bururako 2. topaketa. Eti bako kultura eta giza eskubideak buruzko adierazpena.



2008 Munduko aurkezpena: "El derecho humano al agua. Situación actual y retos de futuro".



2008 Giza Eskubideen Kultura Sustatzeko UNESCO/Bilbao sariren 1. edizioa. Serfuz Stephanie Hessel.



2009 Ohorazko Bazterdaren Aholku Batzordearen bururako 3. topaketa eta "Gizarte zibilaren parte-hartzea multilateralismo berrian" adierazpena. Bilbao.



2009 "Kulturaren eskubideak, erlijioa eta oherdunen" 2. jardunaldia. Jaime Marchán, Nazio Batuetako EGKE Batzordearen Lehendakaria. Madrid eta Bilbao.



2009 Madrilatiko Bileren Boskora Erreserbelatuako UNESCO Kulturak.



2008 Uraren Garapenera buruzko Munduko II. Txostenaren aurkezpena (gaztelaniaz eta euskaraz). UNESCOren Zuzendaritza Nagusia. Mexiko D.F.



2007 Hitzaldia: "Izaren arma". Hans Blix. Bilbao.



2007 Hitzaldia: "Zer gini ibakuntza gurtzituak bizian dezanen". David Crystal.



2007 Hitzaldia: "Los límites del crecimiento, 30 años después". Dennis Meadows. Deustuko Unibertsitatea.



2008 Giza Eskubideen Aldarrikaparen 60. urtemugaren ospakizuna. Euskadiko Kubaren aktibaldi aietara. Bilbao.



2009 Beghina Ekiberrari omenaldia. UNESCO Etxearen intsigiari emateko ekitaldia.



2007 Hitzaldia: "Alfka eta HESa: Justiza erantzun gisa". Peter Piot. Guggenheim museoa.



2008 Nazio Batuen eguna. Expo Zaragoza.



2009 UNESCO Etxearen epizita berraren inaugurazioa. Idozaki atea - Bizkaitasun plaza. Bilbao.



2010 Uraren munduko eguna. Ustatz Aizgozadabara, UNESCO Etxeko bakarre onglia.



2010 Uraren munduko eguna. Ustatz Aizgozadabara, UNESCO Etxeko bakarre onglia.



2010 "Kultura-erlijioak, bakoiz-aldiko lehenbikusak eta eronak" ekitaldia. Geneva.